

domekako kontuak

Mikel Aramendi

Nor joango sutara?

NATOn jarraitu ala ez erabakitze-ko F. Gonzalezek duela 18 urte antolatutako erreferendumaren aurreko egunetatik hona ziur aski ez zen ikusten honenbesteko gobernu-zalapatarik herritarren mugimendu baten aurka: hedabide *adiskide* guztiak alerta gorrian, CIS propagandarako sasi-inkestak egiten, sekulako polizia despliegak, egun burusoil askotan baino gehiagoko zerbitzu minimoak... Orduan bezala orain, agintari baten ustea izan da pizgailua; ea gerora beste Filesa batzuen abiapuntua 2002koan aurkitu behar izaten ez den.

Aznarrek, izan ere, 86ko martxoaren 12a eta 88ko abenduaren 14a elkartzea lortu baitu aurtengo ekainean. Hasieran, antolatzaileek ere berotasunez baino gehiago etsipenez abiarazi zuten ekimena gartuz joan da, gobernuaren hutsegite eta probokazioengatik batez ere. Euskal Herrian bi deialdi izateak gobernuari eskaintzen zion pitzadura profitatzen ere ez dute asmatu. Urduritasuna (ulergarria, PPri sortzen ari zaion panorama ekonomiko eta estrategikoa ikusita; inondik inora ere ez sindikatuen erronka hutsagatik) nabarmentzen duten adierazpenak eta zuzenketak ugaritu ahala, grebak arrakasta lor dezakeenaren irudipena finkatu egin da.

Joan den ostegunean Madrilgo Parlamentuan ditzosozko erreformarako dekretu-legea berrestera bakarrik geratu izana, formalki hutsala den arren, politikoki asaldagarria gertatu da PPrenztzat. CiUren abstentzioa, izugarritzko presioen ondorengoa izan zelako, besteak beste. Berehala iritsi ziren errepresa-



JOSE HUESCA / EFE

Jesus Posada, Federico Trillo eta Juan Jose Lucas PPko diputatuak, ostiralean.

19ko beste erronka

Jakitunak ere ez dira ausartzen 19an Purgatoriotik zer atera daitekeen aurrez esaten. Baina ezkorrak izatea hobe; aurretiko aztarna guztiak Galindoren aldekoak dira. Abokatueta bat epaimahaiburu edukitzea beti da abantaila, eta epaile izan arren abokatu izateari utzi ez dionean, are gehiago. Hemen ez dela inoiz Stevens txostenik idatziko seguru daudelako izango da.

liak Bartzelonako Parlamentuan, gainera.

Aznar eta Pujolen arteko zubiak izan dira asaldura hau nozitu duten lehenak,

baina ez dira izango azkenak. Sevillara begiratzuz, *Espainiaren irudiaren* adar okerrari heldu zion Moncloa hasieratik; burtsa eta inguruko adar ekonomiko

okerragoa ari zaio saihetsetik sartzen orain, ordea.

Argi dago San Joan aurreko sute horretatik zerbait/norbaitek erraustuta atera behar duela.

Legitimitateen gatazka

Gure politikak hain gogokoak dituen aritmetika kontuetan gehiegi murgildu gabe ere, argi dago atzo Aznarren (aitaren izena ezkutatzeko ibili beharrik ez dago, ekimena sasiko utzi nahi ez bada behintzat) Partidu Legearen aurka Bilbon egindako manifestazio handiak euskal herritarren gehiengo zabalen iritzia agertzen duela. Zenbatekoa, gehiengoa? Printzipioak ere bozketaz zertuko balira, larriago ibiliko lirateke jaitsiera postuetan beste batzuk.

Ez da hala, ez luke hala izan behar, eta atzokoaren ageri-ageriko mezu politikoa, Gasteizko Legebiltzarrean egin zenean bezala, da euskal herritarren gehiengoa, arrazoi ezberdinek eraginda bederen, Batasuna legez kanporatzea ez onartzekotan bat datorrela. Ez da arrazoi makala, Madril ordezkaritza politikoen, ordezkatuei inoiz zuzenki proposatu gabe haatik, gehiengo oso zabalez onartu duten lege batean. Inkestak, oraingoz ez baitira legitimitate sorburu politikan.

Legitimitate auzi horretantxe datza, dudarik gabe, sakoneko gakoa hemendik aurrera gure gizartearentzat, orobat (Batasunarentzat, gauzak ez dira horren teorikoak, noski). Berriro ere bi jarrera, bi legitimitate ezberdinetan oinarrituta, kontrajartzen dira gure bizimodu politikoan.

Aznarrek lortu nahi zuen helburu nagusia ez ote den bururatzen zait.

gogoratzuz

Joxan Elozegi

DUELA 248 URTE

Elhuyar, ura arin eta harria astun

1754ko ekainaren 15ean sortu zen Logroñon Juan Jose Elhuyar Lubice (Zubize edo Subiza deitzen diote beste batzuek), wolframioa edo tungstenoa bakartu eta zehaztu zuen kimikari eta mea-ikertzaile ospetsua. Lapurtarrak zituen gurasoak; hazpandarra aita, Juan, eta kostatarra, Donibane Lohizunekoa, ama, Ursula. Seme zaharrena zen bera, urte bete barru sortuko zen haren anaia Fausto Fermin eta lau urteren buruan arreba Lorentxa. Zail xamarra gertatzen da batzuetan historiako pertsonaien nondik norakoa zehaztea, baina Elhuyar anaien kasuan garbi asko dago aitaren eginei esker iritsi zutela bestela nekez joko zuketena muga.

Etxe onekoa zen Joan Elhuyar hazpandarra. Medikuntza ikasketak egin zituen gaztetan, eta barber edo zirujau jardun zuen Hego Euskal Herriko hainbat lekutan. 1853an egokitu zen Logroñon, Espainiako Inkisizioak, orduko Audiencia Nacionalak, euskaldunak hurbilxeagotik

lotzeko hautatu zuen hirian. Ospea ekarri zioten Elhuyarri han eta hemen arrakasta handiz eginiko ebakuntzek, baina askoren bekaitza piztuko zuen ospe horrek aldi berean. Arazoak izan zituen Joan Elhuyarrek Ofizio Sainduarekin eta, gorabehera ekonomikoei ganoraz aurre egitearren, alantxaketa jo eta maisutasuna erakutsi zuen alkoholaren destilazio lanean. Espainiako erresuman saldu zituen pattar, likore, uxual, agoardient eta edari biziei esker ordaindu ahal izan zituen bi seme nagusien goi mailako ikasketak Pa-

risen. Aitaren zalaparten eskutik etorri zen, beraz, Elhuyararren jakintza.

Parisko ikasketak bukatu ondoren, metalgintzaren arloko ikerketetan segitzeko aukera izan zuten bi anaiek Freibergen: Espainiako errege Karlos III.aren zuzeneko laguntza jaso zuen Juan Josek eta Euskalerriaren Adiskideena Fausto Ferminek. Teknikez jabetzea ez ezik, barrandari lanak ere agindu zituzten Juan Joseri: ingelesaren eta ipar europarren kanoigintzaren sekretuak ikasi behar zituen, kanoietan baitzegoen armada ingelesaren

nagusitasunaren arrazoi nagusia. Ikasle finak ziren Elhuyararren, ez ordea horren espioi eraginkorrak. 1781eko abenduan, Bergarako Mintegiak lagunduta, Suedia aldera jo zuen Juan Josek eta, hango kanoien berri ikasiko bazuen ere, bestelako gai batzuek erakarriko zuten bereziki, Torbern Bergman irakasle handia horren txoraturik zeukan *tungsten* adibidez. Suediar haiek bazekiten *tungsten* (hau da, «harri astuna») deitzen zuten mean bazegoela gai berezi bat, trinkoa bezain astuna, ordura arte ezin bakartu zutena. Axola harekin itzuli zen Juan Jose Bergarara eta 1783an zehaztu zuten lehenengoz Elhuyar anaiek wolframioa edo tungstenoa, wolframita izeneko metatik abiatuta.

Liburu batzuek besterik dioten arren, Juan Joserena izan zen bereziki wolframioaren aurkikundea, eta ez Fausto Ferminena. Tira, ba! Harri astunaz arduratu ziren semeak, ur arin bidez aita. Bitxia benetan giza jendearen patua!